

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### **Etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2020ko maiatzaren 14ko erabakiaren laburpena**

BDNS(Identif.): 510742

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

18 urtetik gorakoak, genero indarkeriaren biktima diren emakumeak eta seme-alabak, eta COVID-19aren pandemiak eragindako alarma egoeran deklaraturako denboraldian, kaleratze, ABEEE, eta abarren ondorioz lan baldintzak kaltetu zaizkien eta gizarte alokairu erregimeneko udal etxebizitzaren esleipendun diren familiak, beren jabetzakoa ez den etxebizitza bat badute, edo usu-frukturako edo azalerarako eskubiderik ez badute, oinarrietan zehaztutako salbuespenetan ezik.

Eskatzaileek Zuian erroldatuta egon beharko dute eta alokatutako etxebizitza beren ohiko eta etengabeko etxea izango da, genero indarkeriaren biktima diren pertsonen kasuan izan ezik, segurtasun arrazoiengatik. Egoera horri eutsi beharko zaio, laguntza jaso bitartean; eskakizun hori udalak egiaztatuko du.

Laguntzak jaso ahaliko dituzte 3.000 euro eta 25.000 euro arteko diru-sarrera haztatuak dituzten pertsonak, baldin eta banakako eskaera bada, eta 30.000 eurokoa, elkarrekin egindako eskaerak badira. Sarrera haztatuak kalkulatzeko, aintzat izango da Babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan xedatutakoa.

#### **Bigarrena. Xedea**

Beharrianak dituzten udalerriko pertsona eta kolektiboak alokairurako, azalera edo usu-fruktu-eskubiderako sarbidea erraztea, kasu zehaztuetan izan ezik (etxebizitzaren jabetasuna, herentziaren edo donazioaren ondorioz, beti ere, ez badu ehuneko 50a ez badu gainditzen, edo balioak ez badu 75.000 euroko kopurua gainditzen; etxebizitzak ez baditu bizigarritasun baldintzak betetzen, eta ez bazaio epai bidez bikotearen barruko bikotekide bati banaketa-prozesuaren, dibortzioaren edo izatezko-bikote izaera bertan behera uzteko prozesuaren ondoren ematen; genero indarkeria jasan duten biktimak, etxebizitza segurtasun-arrazoiengatik utzi behar izan badute).

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

2020ko maiatzaren 14an Udal Osoko Bilkurak onartuak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Partidaren hornikuntza ekonomikoa 4.000 eurokoa da, eta 20.000,00 euro-ko gehikuntza izango du.

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileroko errentaren ehuneko bat da, ehuneko 30etik 60erakoa, hilean 300 euroko mugarekin eskaera bakoitzeko, 12 hilabeteko gehienezko epealdirako, alokairu-kontratuaren data kontuan hartuta.

**Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

Eskaerak aurkezteko epearen amaiera: 2020ko azaroaren 30ean.

Dokumentazioa Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar da.

**Seigarrena. Beste datu batzuk**

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak [www.zuia.eus](http://www.zuia.eus) orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko maiatzaren 14an

*Alkate-udalburua*

*UNAI GUTIERREZ URKIZA*